ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko apirilaren 10a, asteazkena • 44 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Titulartasuna ikertzeko espedientea (Espedientea: 2018/66/S566)

2019ko martxoaren 25ean onetsi zen osoko bilkuran Goienuriko kalezuloen (etxe arteko sarbideen) inguruko ikerketa-espedientea abiaraztea. Kalezuloek 1. poligonoko 120 partzela osatzen dute. Horiek horrela, erabakia ALHAOn argitaratu da kalezuloen titulartasun zuzena zein den zehazteko, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren 9. Artikuluarekin bat.

Halaber, udaletxeko iragarkien taulan ikusgai ipiniko da 15 egun baliodunez.

Iragarkia udaletxeko iragarkien taulan ikusgai izateko tramitea bukatzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta, hilabeteko epean, ikerketa espedienteak ukitutako pertsonek Udalbatzaren aurrean euren eskubideen alde egoki deritzoten guztia alegatu ahalko dute idatziz, alegazioak oinarritzeko dokumentu guztiak erantsita.

Goiko paragrafoan adierazitako epea igarotakoan, froga-epea zabalduko da, zeinetan elementu hauek onartuko diren:

— Zuzenbidearekin bat emandako dokumentu publiko judizial, notarial edota administratiboak.

— Peritu-azterketa eta -irizpena.

— Lekukoen deklarazioa.

Laudio, 2019ko apirilaren 1a

Alkate-udalburua
JON IÑAKI URKIXO ORUETA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.04.10 05:32:27 Z